



ATARIKO PROBA

AZTERKETA

EREDUAK



Euskararen Gaitasun Agiria

EGA

ATARIKO PROBA

Azterketa eredua-1

Azterketa-eredua: **A**

> IRAKUR ITZAZU OHARROK

1. Galdera-orri hauetatik atera ezazu solte dagoen erantzun-orria.
2. Konproba ezazu koadernotxo honek 8 orrialde dituela eta ez dagoela ageriko akatsik.
3. Koadernotxo hau ez da zuzentzen, baina idatz itzazu zure izen-deiturak eta NA zenbakia:

NA zenbakia

Izena

1. deitura

2. deitura

4. Atariko proba egiteko denbora: ordubete.
 5. Erantzuten hasi aurretik bete ezazu aparteko **erantzun-orriko B atala**. Kontuan izan orri hori dela zuzentzen dena. Ipin datuak eta markak behar bezala.
 6. Ariketa bakoitzean aukeratu behar duzu erantzun **zuzena** edo **egokiena** edo **zein dagoen gaizki** eta erantzun-orrian dagokion koadrotxo arkatzez markatu: erantzun bakarra.
 7. Asmatu erantzun bakoitzeko, puntu bat; erantzun okerrenetatik ez da punturik kentzen.
 8. Aukera anitzeko test hau era automatizatuan zuzentzen da, irakurgailu optiko bidez.
- > Erantzun-orria betetzearekin azterketariak era honetako zuzenketari berariazko onespena ematen diola ulertzen da.

Tibetarrak altuerara nola egokitzen diren argiago dago

Science aldizkariaren uztailaren 4ko zenbakian tibetarrek altuerarekiko duten egokitzapen mekanismoari buruzko arrasto sendoak eman zituzten. Munduan bi populazio bizi dira 4.000 metrotik gora, tibetarrak eta andetarrak. Azken horien altuerarekiko egokitzapen mekanismoa ezaguna da: euren odolak askoz hemoglobina gehiago ekoizten du gainerako gizakiona baino; horrela, nahiz eta bizi diren altueran itsas mailan baino %40 oxigeno gutxiago izan, beraiek oxigeno gehiago garraia dezakete gorputzeko zeluletaraino.

Baina hemoglobina ekoizpen horrek oso ondorio kaltegarriak ditu andetarrentzat. Odola loditu egiten da, eta horrek zaildu egiten du ehunen oxigenazioa. Horregatik, emakume haurdunek ume asko galtzen dituzte, eta jaiotzen direnak oso txikiak dira. Tibetarren hemoglobina kopurua, berriz, normala da; haien kasuan, geneetan dago gakoa, eta batez ere EPAS1 izen duen eta goi mailako kirolean ondo ezaguna den genean. Antza, egungo tibetarrengan EPAS1 genea mutatu egin da, eta oxigeno eskasiara moldarazi ditu gorputzak.

Joxerra Aizpurua
(*Argia*, 2010)

1. Altuera handiko guneetara egokitzeko, zer da beharrezkoa?

- A Kasu guztietan, hemoglobina gehiago ekoiztea.
- B Odolean nahiz geneetan aldaketak gertatzea.
- C Gene aproposak garatzea hemoglobina kopurua ugaltzarren.
- D Gorputzeko zeluletaraino oxigeno gehiago garraiatzea.

2. Zer ikasi dugu andetarren eta tibetarren mekanismoak alderatuta?

- A Tibetarrek ondorio kaltegarriagoak jasaten dituztela.
- B Kirolaren ondorioz, tibetarrek mekanismo berezia garatu dutela.
- C Hemoglobina eskasiagatik andetarrek oxigeno gutxiago dutela.
- D Tibetarrek ez dutela pairatzen andetarren ondorio kaltegarriak.

Tribial feminista sortu dute

Historia garaileek idazten dute. Eta gizonek. Mende luzez, emakumeak erabat isilaraziak izan dira historian, historialariek ikuspuntu guztiz partziala kontatu baitute, emakumea ikusezin bilakatuta. Historiaren ikuspegi hankamotz horri buelta eman nahian sortu dute Tribial Feminista hainbat herritako Udaletako (Arrasate, Basauri, Ermua, Ondarroa eta Zierbena) eta Uribe Kosta Mankomunitateko Berdintasun Sailek. Bi helburu nagusi ditu jokoak. Batetik, emakumeek jakintzaren eta bizitzaren hainbat eremutan egindako ekarpenak nabarmentzea. Bestetik, feminismoak teoria politiko gisa eta XX. mendeko funtsezko mugimendu sozial gisa egindako bidea erakustea. Hala, ohiko *Trivial Pursuit* jokoaren formatu berbera du, baina eduki ezberdina. 1.200 galdera prestatu dituzte jokorako, Historia, Geografia, Artea eta Literatura, Zientzia eta Ikuskizunak eta Kirolak ataletan banatuta. Euskaraz eta gaztelaniaz eginiko galderetan, nazioarteko kontuak ez ezik, gertukoak ere aintzat hartu dira. 4.500 ale prestatu dituzte, baina ez dituzte salgai ipini. Oraingoaz, ikastetxe, kultur etxe eta gazteen txokoetan banatuko da jokoak. Izan ere, gazteen artean eragitea du helburu. Hots, nerabeek gaztetatik ikas dezatela zein den benetako historia: gizon-emakumeek osatutakoa.

Aizu, 2010

3. Zer dakar tribial berriak aurrekoen aldean?

- A Emakumeek ekarpenei buruzko hainbat galdera.
- B Gizonezkoen eta emakumezkoen ekarpenak, biak nahasian.
- C Ohiko galderak, baina emakumeen aldeko ikuspegia nabarmenduta.
- D Gizon-emakumeek osatutako jokoak, euskaraz eta gaztelaniaz.

4. Zein da Tribial Feministaren azken helburua?

- A Gizonezkoen ikuspuntua isilaraztea.
- B Gizon-emakumeek elkarrekin egindako aurrerapenak aintzat hartzea.
- C Feminismoari buruzko 1.200 galderarik funtsezkoenak biltzea.
- D Gaztetxoei historiaren ikuspegi orekatuagoa eskaintzea.

5. *Emango pozik, zuk zeureak utziko !*

- A nizun bazenizkidan
- B dizkizut bazenizkit
- C nizkizuke bazenizkit
- D nizkizun bazenit

6. *Ez dakit izango diren opil hauek, baina bat hartuko dut.*

- A norentzat
- B zeinentzako
- C norentzako
- D zeintzuentzako

7. *Ogia amaitu zaigu. Hortaz,, atzokoa jan beharko dugu.*

- A beste barik
- B ezer gehiago ez badago
- C beste ezeren beharrean
- D besterik ezean

8. *Harrigarria badirudi ere, horixe gertatu da. Zein erantzun dago gaizki?*

- A Ez da izango!
- B Zaude isilik!
- C Ez ezazu esan!
- D Esatea ere!

9. *Baina orain ezin etsi dezaket. Niri zoriontasunerako bidea askozaz ere gogorragoa egokitu bazait ere, jada ailegatzear baitago helmuga.*

- A Etsitzen badut, zorion bidea gogorragoa izango zait eta ez zait helduko helmuga.
- B Ezin dut etsi, zoriontasun bide gogorraren naiz eta.
- C Oraintxe bai ezin dudala etsi, niri ere laster datorkit zoriontasuna eta!
- D Zoriontasuna zoriontasun, gogorra da niretzat helmugara iristea.

10. *Noiz gertatu zen, ba?*

- A Martxoak 20ko ordu bata eta erdietan.
- B Martxoaren 20ko ordu bata eta erditan.
- C Martxoaren 20ko ordu bat eta erdietan.
- D Martxoak 20ko ordu bata eta erditan.

11. **Idazkera.**

Zenbat jende da pentsaera horretakoa?

- A EAEko herritarren % 80.
- B E.A.E.ko herritarren % 80a.
- C EAE-ko herritarren % 80-a.
- D E.A.E.-ko herritarren % 80.

12. *Merezi proba egitea, azken batean guk ez zer galdurik.*

- A ziok gaituk
- B dik diagu
- C genian zian
- D dun gaitun

13. *Ez joan esan nion, edozer gauza gerta*

- A zedila dakiola
- B dadila zekiola
- C zedila zekiokeela
- D bedi dakiokeela

14. *Horrek ez du batere zentzurik.*

Esanahia:

- A Buruan haizea baino ez du.
- B Burua lehengo lepotik dauka.
- C Ez du ez hankarik eta ez bururik.
- D Ez da ez ur ez ardo.

15. *Zein dago zuzen?*

- A Gauza horiek ez dira edozein pertsonen esku egoten.
- B Langile batek ahal duen adina dirua gehiena aurrezten saiatzen da.
- C Urdurik nabil aspaldian, hartzen dudan botikagatik edo.
- D Azken hauteskundeetan alkate aukeratu zuten.

16. *Telefonoz deitu duzu Itziarren etxera:*

- A Egun on, Itziarrekin hitz egin nahi dut.
- B Arratsalde on, Itziar dago etxean?
- C Kaixo, Itziarrik badago etxean?
- D aupa, Itziar al dago hor nonbait?

17. *Egin al dituzu egindutako guztiak?*

Baietz erantzuteko:

- A Bai egin ditudala!
- B Horixe egin ditudala!
- C Bai egin ere!
- D Baita egin ere!

18. *Brastakoan hedatutako laino itxiari ohi zaion izuzirrarak hotzikaratu ninduen. Hau da:*

- A Itsasontziaren aurrealdean izaten den lainoak eragiten duen hozkirriaren antzekoa sentitu nuen.
- B Ekaitza dakarrenean zabaldu ohi den laino itxi eta hotzak ikaratu ninduen.
- C Bat-batean zabaltzen den laino itxiak eragiten duen moduko beldurrak asaldu ninduen.
- D Sarritan hedatu ohi den laino itxi beldurgarriak hotzikara eragin zidan.

19. *Aurreko batean, laban egin eta erori nintzen.*

- A ahuspez
- B atzekoz aurrera
- C bizkar ematen
- D muturrez gora

20. *Ba, guk laguntzea nahi badu, jai dauka!*

Esanahia:

- A Poztu egingo da gure laguntzaren berri izatean.
- B Pozik lagunduko diogu.
- C Gure laguntza onartzen badu, ondo pasatuko du.
- D Alferrik dabil, ez diogu lagunduko.

21. *Ez omen du koplatan ibiltzeko gogorik.*

Esanahia:

- A Ez omen du kanturako gogorik.
- B Ez du alferkerian ibili nahi, antza.
- C Ez ei du txikikeriatan ibiltzeko gogorik.
- D Ez bide du abesteko gogorik.

22. *Zein dago zuzen?*

- A Nor eta zuk aurkitu behar galdu nuen eraztuna!
- B Non eta Donostiara joan nahi izatea ere!
- C Zerk eta lanik ez izateak kendu dik bizitzeko gogoia?
- D Zer eta diruari ematen diozu halako balio handia?

23. *Zein dago gaizki?*

- A Dioten arabera
- B Zuri esker
- C Teilatu gainean
- D Ibaiaz bestaldean

24. *Egurra eman ote zion? Hala, !*

- A jotzen eta jotzen
- B buruz behera
- C jo eta txikitu arte
- D zingi-zanga

25. *Atzo gure aita oso haserre zegoen;*

Zein jarraipen dago gaizki?

- A ez zen giro haren ondoan!
- B leher eginda zegoen.
- C bere onetik aterata zegoen.
- D gozoa zegoen!

26. *Bi hilabete falta Gabonetarako eta erosiak dituzu haurrentzako opariak?*

- A honezkero
- B artean
- C dagoeneko
- D oraindik

27. *Hegazkinak kontrola galdu du. Ai, ene, !*

- A gureak egin du
- B egin dugu gurea
- C egin da gurea
- D gurea egin digu

28. *Arautegiari dagokionez, azkenerako amore eman zuen Pellok.*

Bestela esanda:

- A Gustura onartu zuen arautegia Pellok.
- B Arautegiari aurre egin zion Pellok.
- C Pellok etsi egin behar izan zuen eta arautegi onartu
- D Irmotasunez oldartu zitzaion Pello arautegiari.

29. *Pozarren gindoazen Miren bisitatzera. Nik izugarritzko ilusioa nuen.*

- A bidenabar
- B gutxienez
- C behinik behin
- D aitzitik

30. *Ingurukoengandik ihes egiten duena; lagunartetik aparte bizitzeko joera duena:*

- A zekena
- B zaputza
- C erkina
- D mizkina

31. *Idazkera. Zein dago zuzen?*

- A Jakintsuen arabera.
- B Nere etxean.
- C Bapateko bertsoak.
- D Jakin ezker.

32. *Zein zerrendatan dago hitz bat tokiz kanpo?*

- | | | |
|--------------|--------------|------------|
| A lehenengoa | lehenbizikoa | aurrenekoa |
| B unatu | akitu | nekatu |
| C heldu | oratu | behatu |
| D iragan | pasatu | igaro |

33. *“Zergatik ez diozu itzuli bere dirua?” galdetu nion eta, zakar, hau erantzun zidan:*

- A Harexegatik!
- B Ezergatik!
- C Zergatik ez!
- D Horratik!

34. *Ezagun du horrek gaztea dena!*

Alegia:

- A Gazte guztien adiskide da.
- B Edozein gazte ezagutzen du horrek.
- C Begien bistan dago haren gaztetasuna.
- D Trebetasun handia du gaztea zein den jakiteko.

35. *Freud-en psikoanaliari esker antzemandako desoreka psikologiko askoren iturria maitasunik eza delakoan nago.*

Hau da:

- A Freud-ek bazekien desoreka psikologiko askoren iturria maitasunik eza dela.
- B Nire aburuz, maitasunik eza da arazo psikologiko jakin askoren sorburua.
- C Freud-en arazo psikologikoei esker antzeman daitezke desoreka eta maitasunik eza.
- D Psikoanaliaren bidez Freud-ek maitasunik eza antzeman zuen.

36. *Ikustekoa zen diskotekako giroa: batzuk saltoka besteak edanda kantuan, !*

- A hala zeuden han
- B han ziren han izatekoak
- C denak zeuden hala
- D nolakoak zeuden denak

37. *..... Giltzak etxean ahaztu ditut!*

Haserrea adierazteko:

- A Kaka ustela!
- B Kaka-nahastea!
- C Kaka zaharra!
- D Kaka madarikatua!

38. *Ez dabil, ba, beti kalkulagailu eske? Ba, !*

- A eros dezala
- B erostea bat
- C erosteko
- D eros bedi

39. *Mikelek dirua itzuliko diala uste al duk?*

Jarraipena:

- A Emaiok ilargiari bira!
- B Egon hadi horretan!
- C Jaitsi hadi pikondotik!
- D Hori sineskeria!

40. *Aitorrek Jonek alde egitea nahi du. Zer esango dio?*

- A Aida!
- B Utzidazu paketan!
- C Utikan!
- D Zapi!

41. *Zein dago zuzen?*

- A Film hori lau bider ikusi egin dut.
- B Neuk hogeitaz liburu irakurri egin ditut.
- C Uda honetan Joxe argaldu egin da.
- D Oso eraikin ederrak ikusi egin ditugu gure bidaietan.

42. *Kostata ari zarete, baina ez duzue asko falta txapeldun izateko.*

Jarraipena:

- A Ibili-ibili!
- B Eutsi goiari!
- C Etsi ezazue!
- D Zaudete horretan!

43. *Hori da amorrua hori! Hori egin diona sartu denari!*

- A begirakunea
- B begirunea
- C begikoa
- D begiramena

44. *Hizkuntza gaelikoaren berpizte prozesuan gurasoen ausardia eta presioa funtsezko gertatu dira.*

Alegia:

- A Gaelikoaren aldeko prozesuan gurasoen ausardia eta presioa hutsaren hurrengo izan dira.
- B Gurasoen ekimena eta presioa funts gutxikoak izan dira gaelikoa berpizteko orduan.
- C Gurasoen ahalegin eta presioa funtsean geratu dira gaelikoa berpizteko bidean.
- D Gurasoen kemena eta presioa garrantzi handikoak izan dira gaelikoa berpizteko bidean.

45. *Mirenek hirukiak izan dituela jakin duzu.*

Harridura adierazteko:

- A Ezta pentsatu ere!
- B Zenbat halakoak!
- C Ez da izango!
- D Hor dugu, ba!

46. *Ba daki horrek zer esaten duen?*

- A omen
- B ahal
- C ote
- D ohi

47. *Ez diot zuk esandakoari erreparatu.*

Esanahia:

- A Ez dut horretan denbora galtzeko gogorik.
- B Esanak esan, nik ezin dut orain ezer konpondu.
- C Esan duzun horretan ez dut arreta jarri.
- D Ez dut uste zuk esandakoa konponduko dudunik.

48. *Sekula ez zioten gezurrik esaten.*

- A elkar
- B elkarri
- C elkarren
- D elkarreri

49. Zein dago zuzen?

- A Alferrik da hamabost urtez ikastea, gero lanarik gabe aurkitzen bazara.
- B Erabaki horrek zenbait enpresen arteko liskarra eragin du.
- C Lantegitik itzultzerakoan nekatuegia zaude seme-alabeei ipuintxoak kontatzeko.
- D Ez zuk, ez bestek ez dit esango zer egin.

50. Lexikoa. Zein dago gaizki?

- A Bilera egin arte ez dugu ezer erabakiko.
- B Haurrak haztea ez da lan erraza.
- C Horrelako istripuak askotan ematen dira.
- D Durangoko azokarako liburu asko argitaratzen dira.

51. Idazkera. Zein zerrenda dago zuzen?

- A Ertamerika / Pirineoak / Argelia / Bruselas / Norbegia / Madrid
- B Erdialdeko Amerika / Pirinioak / Aljeria / Brusela / Norvegia / Madril
- C Erdi Amerika / Añamendiak / Aljeria / Brussela / Noruega / Madrid
- D Erdiko Amerika / Pirineoak / Aljeria / Brusel / Noruega / Madril

52. Hurrengo Aita Santua budista izango dela? Erantzuna:

- A Pentsatu ere! Hori ezinezkoa da.
- B Tira, tira! Hori ezinezkoa da.
- C Ea ba! Hori ezinezkoa da.
- D Noski ezetz! Hori ezinezkoa da.

53. Herrixka malapartatu hartan, batek izan ezik, orok zekiten zein zen gaiztakeria hura burutu zuenaren izena.

Hots: Herrixka malapartatu hartan

- A ez zegoen gaiztakeria hura burutu zuenaren izena ez zekienik.
- B ez zegoen inor gaiztakeria hura burutu zuenaren izena ez zekienik.
- C bat bakarra zen gaiztakeria hura burutu zuenaren izena ez zekiena.
- D norbaitek ez zekien gaiztakeria hura burutu zuenaren izena.

54. Zazpi etorriko dira.

- A egunen barru
- B egun buruan
- C egun barru
- D egun buru

55. Joxek ez du erraz amore ematen.

Hau da:

- A Joxek nekez zabaltzen du bihotza.
- B Joxek ez du erraz etsitzen.
- C Joxek ez du erraz iruzur egiten.
- D Joxe oso bihozbera da.

56. Hauxe da arlote horren filosofia: ni ondo bizi eta besteak

- A auskalo
- B kili-kolo
- C hor konpon
- D salda bero

57. Zein zerrandatan dago hitz bat lekuz kanpo?

- A tontorra / gailurra / gaina / erpina
- B sorta / multzoa / taldea / bilduma
- C printzea / erregea / printzesa / erregina
- D oinordekoa / maiorazgoa / premua / umezurtza

58. Zein dago zuzen?

- A Etzi hasten dira jardunaldiak.
- B Gu egunero goaz kiroldegira.
- C Ez dute egin nahi izango.
- D Txikitan, nirekin zihoan judora.

59. Eskutitz hasiera eta bukaera egokiak:

- A Kaixo, aspaldiko: Ongi izan.
- B Agur t'erdi: Gero arte. Ondo ibili.
- C Andere agurgarria: Besarkada bat.
- D Zer moduz, Itziar? Begirunez.

60. , eta ikusiko dute zer den ona!

Hasiera:

- A Etortzea baino gehiago ez dute
- B Etorri bakarrik ez dute
- C Etorri besterik ez dute
- D Etortzea gehiagorik ez dute

61. Gaizki esanak, ondo esanak

- A barkatu kontuan hartu
- B ahaztu kontuan hartu
- C barkatu gogoratu
- D ahaztu gogoratu

62. Ez da zu beste inor etorri.

Beste era batera esanda:

- A Ez zu eta ez beste inor ez da etorri.
- B Zeu baino ez zara etorri.
- C Zu ez beste guztiak etorri dira.
- D Bakarrik etorri zara, inor gabe.

63. *Udalak auzitan jartzen du lege berri honek lantegi kutsatzaileen isurketak eragozteko duen baliagarritasuna.*

Beste era batera:

- A Udalak lege berriaren eraginkortasunaz zalantzak ditu.
- B Lantegien isurketak udalarentzat auzi larria direnez, lege berria proposatu du.
- C Isurketak egingo dituzten lantegi berriak irekitzea eragotzi nahi du legeak.
- D Kutsadura eragoztearren, udalak bat egiten du lege berriarekin.

64. *Sorginaren keinu batekin printze gaztea bihurtu zen.*

- A igelean
- B igel
- C igel batean
- D igel bat

65. *Aitona, zu gaztetan soldadutzara joan al zinen?*

Erantzuna:

- A Bai horrenbestez!
- B Bai, baina indarrera!
- C Jakina, behar-beharrean!
- D Beharko joan!

66. *Nik hori egingo dudala uste baduzu, !*

- A argi daukazu!
- B garbi daukazu!
- C argi daramazu!
- D jai daukazu!

67. *Aurten ere uda beroa eta lehorra izango ote dugu?*

Erantzuna:

- A Ba, larri ibili!
- B Badaki bereak egiten!
- C Ederrak ikusteko gaude
- D Bai, gozoak gaude!

68. *Ez dira bost minutu igaro eta nekatuta zaudete.*

- A dagoeneko
- B honezkero
- C oraindik
- D oraingoz

69. **Zein dago zuzen?**

- A Ezagutzen dut mutil bat deitzen dela Aitziber.
- B Lan guztiak amaitutakoan afalduko dugu.
- C Ahalik eta merkeagoa erosi zuten.
- D Eguraldi ona egiterakoan, mendira joan dira.

70. **Data galdetzeko:**

- A Zein eguna da gaur?
- B Hilak zenbat ditu gaur?
- C Zein egunean gaude?
- D Hilak zenbat betetzen ditu gaur?

71. **Nola bukatzen da esaera hau?**

Jokoa

- A ez da guztion gogokoa
- B behin eta nahikoa
- C zorionaren oztopoa
- D ez da errenta

72. *Harrapatzen bazaitut, harrapatu, alproja hori! Zer adierzi nahi du?*

- A Mehatxua
- B Irrika
- C Ahalmena
- D Zalantza

73. *Zer darabilzu esku artean?*

Erantzuna:

- A Ezer ere ez. Ez daukat ezer.
- B Ezer ere ez. Ez daukat ezer ere ez.
- C Ezer. Ez daukat ezer.
- D Ezer ere. Ez daukat ezer ere.

74. **Zein dago gaizki?**

- A Laster nonahi ikusiko ditugu arabiar jatetxeak ere.
- B Zuritu ezazu sagarra jan baino lehen!
- C Ez du merezi behar baino lan handiagoa hartzea.
- D Autobus geltokian itxarongo zaitut lauetan.

75. *Gauden denok alai.*

Esanahia:

- A Egon gaitezen denok alai.
- B Denok alai gaude.
- C Denok geunden alai.
- D Alai gintezke guztiok.

76. **Zein dago zuzen?**

- A Gure ametsak egi bihurtu ziren.
- B Agentzi horiek ere badute abantailik.
- C Ez nau inork iritziz aldaraziko.
- D Eta, horrela, pertsona desberdin batean bilakatzen zara.

77. *Nagi horrek ez dik berehala egingo; badakik: "Geroa alferraren..."*

- A kontua
- B oihua
- C zozoa
- D leloa

78. Gipuzkoako herri batean jaio zen, Tolosan

- A alegia
- B hain zuzen ere
- C ordea
- D beraz

79. *Nire autoak 20 urte ditu.*

Jarraipena:

- A Hobe beharrez dago.
- B Aldatzear dago.
- C Bere onetik aterata dago.
- D Onenak emanda dago.

80. *Urte asko da Donostiako etxe horretan ginenetik.*

- | | |
|-------------|-------------|
| A pasatu | bizi izan |
| B pasa izan | bizitzen |
| C pasatu | bizitzen |
| D pasa | bizi izaten |

81. Euskara batuan, zein dago zuzen?

- A Egin dezakeenak egin dezala.
- B Eman hala jaten zuten belarra.
- C Autobusa galduez gero, deitu etxera.
- D Gauz guztiak ondo egiten ditu.

82. *Galtza josi behar ditut, behea jo beharrean daramatzat eta.*

- A patrikak
- B barrenak
- C joskurak
- D zimurak

83. *Duintasuna lehenesten zuten guztiek, jenialtasunaren aurretik.*

Hau da:

- A Hurrenez hurren, jenialtasuna zen aurrena, eta gero duintasuna.
- B Duintasunari ez zioten jenialtasunari adinako begirunerik.
- C Duintasuna onesten zuten, baina ez jenialtasuna bezainbeste.
- D Duintasuna jenialtasuna baino gogokoagoa zuten.

84. *Ez dizkizut kontatuko entzun ditudanak!*

- A Mirenetaz
- B Mireneri buruz
- C Miren gainean
- D Mirenez

85. *Abereekin zerikusirik ez duen lanbidea:*

- A al baitaria
- B itzaina
- C igeltseroa
- D ferratzailea

OHARRA:

Azterketa bukatzen duzunean, konproba itzazu hurrengoak: (1) erantzunak; (2) NA zenbakia eta eguna ongi markatu dituzula. Ez mugitu zure aulkitik arduradunak horretarako baimena eman arte.



ERANTZUN-ORRIA

A. HASI AURRETIKO OHARRAK

1. Ez tolestu, ez zimurtu orri hau.
2. 2 zenbakiko arkatza erabili betetzeko.
3. Erantzuten hasi baino lehen bete ezazu B atala.
4. Zuzendu nahi baduzu, borragomaz ongi ezabatu.
5. Ez mugitu aukitik; zerbait nahi baduzu, aitxa eskua.

B. IDATZI ZURE DATUAK

Izen-deiturak:

(Deialdi itxien kasuan) zein euskaltegiren bidez matrikulatu zara?

Idatz ezazu zure NAN zenbakia, ikus adibidea.

ADIBIDEA										ZURE ZENBAKIA									
0	8	9	0	7	8	2	9			0	0	0	0	0	0	0	0		
0	0	0	0	0	0	0	0			0	0	0	0	0	0	0	0		
1	1	1	1	1	1	1	1			1	1	1	1	1	1	1	1		
2	2	2	2	2	2	2	2			2	2	2	2	2	2	2	2		
3	3	3	3	3	3	3	3			3	3	3	3	3	3	3	3		
4	4	4	4	4	4	4	4			4	4	4	4	4	4	4	4		
5	5	5	5	5	5	5	5			5	5	5	5	5	5	5	5		
6	6	6	6	6	6	6	6			6	6	6	6	6	6	6	6		
7	7	7	7	7	7	7	7			7	7	7	7	7	7	7	7		
8	8	8	8	8	8	8	8			8	8	8	8	8	8	8	8		
9	9	9	9	9	9	9	9			9	9	9	9	9	9	9	9		

Adminis-
trazioak
betetzeko

HONELA BAI



HONELA EZ



AZTERKETA EREDUA

Galdere-orrietan agertzen den eredu-letrak eta azpian markatutakoak bat etorri behar dute. Horrela ez bada, aitxa eskua.

A B C D E F G H

Idatz ezazu gaurko data:

Urtea	Hila	Eguna

C. ZURE ERANTZUNAK

1	A B C D	21	A B C D	41	A B C D	61	A B C D	81	A B C D
2		22		42		62		82	
3		23		43		63		83	
4		24		44		64		84	
5	A B C D	25	A B C D	45	A B C D	65	A B C D	85	A B C D
6		26		46		66		86	
7		27		47		67		87	
8		28		48		68		88	
9	A B C D	29	A B C D	49	A B C D	69	A B C D	89	A B C D
10		30		50		70		90	
11		31		51		71		91	
12		32		52		72		92	
13	A B C D	33	A B C D	53	A B C D	73	A B C D	93	A B C D
14		34		54		74		94	
15		35		55		75		95	
16		36		56		76		96	
17	A B C D	37	A B C D	57	A B C D	77	A B C D	97	A B C D
18		38		58		78		98	
19		39		59		79		99	
20		40		60		80		100	

ATARIKO PROBA • Azterketa eredua-1 • (item zk / Erantzuna)

1	B	16	A	31	A	46	C	61	A	76	C
2	D	17	B	32	C	47	C	62	B	77	D
3	A	18	C	33	A	48	B	63	A	78	B
4	D	19	A	34	C	49	D	64	B	79	D
5	C	20	D	35	B	50	C	65	D	80	A
6	A	21	C	36	B	51	B	66	D	81	A
7	D	22	C	37	C	52	B	67	A	82	B
8	D	23	A	38	A	53	C	68	A	83	D
9	C	24	C	39	B	54	C	69	B	84	D
10	C	25	B	40	C	55	B	70	B	85	C
11	A	26	C	41	C	56	C	71	D		
12	B	27	A	42	B	57	D	72	A		
13	C	28	C	43	A	58	C	73	A		
14	C	29	C	44	D	59	A	74	D		
15	D	30	B	45	C	60	C	75	A		



Euskararen Gaitasun Agiria

EGA

ATARIKO PROBA

Azterketa eredua-2

Azterketa-eredua: **A**

> IRAKUR ITZAZU OHARROK

1. Galdera-orri hauetatik atera ezazu solte dagoen erantzun-orria.
2. Konproba ezazu koadernotxo honek 8 orrialde dituela eta ez dagoela ageriko akatsik.
3. Koadernotxo hau ez da zuzentzen, baina idatz itzazu zure izen-deiturak eta NA zenbakia:

NA zenbakia

Izena

1. deitura

2. deitura

4. Atariko proba egiteko denbora: ordubete.
 5. Erantzuten hasi aurretik bete ezazu aparteko **erantzun-orriko B atala**. Kontuan izan orri hori dela zuzentzen dena. Ipin datuak eta markak behar bezala.
 6. Ariketa bakoitzean aukeratu behar duzu erantzun **zuzena** edo **egokiena** edo **zein dagoen gaizki** eta erantzun-orrian dagokion koadrotxo arkatzez markatu: erantzun bakarra.
 7. Asmatu erantzun bakoitzeko, puntu bat; erantzun okerrenetatik ez da punturik kentzen.
 8. Aukera anitzeko test hau era automatizatuan zuzentzen da, irakurgailu optiko bidez.
- > Erantzun-orria betetzearekin azterketariak era honetako zuzenketari berariazko onespena ematen diola ulertzen da.

Ondo lo egin eta luzaroan bizi

Loak bizitza-luzeran duen eragina ikertu du Portlandeko Estatu Unibertsitateak (Oregon, AEB). Ikertzaileen ustez, ondo lo eginez gero, gehiago bizi omen daiteke. Txinara jo dute zientzialariek ikerketa egiteko, bertan 75 urte edo gehiago dituzten 40,5 milioi inguru lagun bizi direlako. 65 urtetik gorako 15.600 lagun (tartean, 100 urte baino gehiago zituzten 2.800) euren loaldiaren iraupenaren eta kalitatearen inguruan itaundu zituzten. Parte-hartzaileen erregistro soziodemografikoekin eta osasun datuekin alderatu zituzten ondoren erantzunak. Ikerlarien aburuz, loaren kalitate txarraren eta osasun arazoaren arteko lotura erakutsi zuten emaitzek. %65ek kalitate oneko loa zutela erantzun zuten, eta batez beste egunero 7,5 ordu lo egiten zutela. 100 urtetik gorakoan artean, erantzun bera eman zuten parte hartzaileen %70ek. Aldiz, osasun txarra zutenen artean, %46k gaizki lo egiteko probabilitate gehiago zutela ikusi zuten. Hala, osasun ona duten adinekoen loaren kalitatea ona omen da. Ikertzaileen ustez, zahartzaroko lo arazoak faktore psikosozial eta fisiologikoengatik sortzen dira batez ere, eta ez adinarengatik. Horixe erakusten du beste estatistika batek: zerbitzu mediku ona zuten parte-hartzaileek ondo lo egiteko aukera handiagoa zuten, %84 gehiago. Beraz, zein da bizitza-luzeraren sekretua: kalitatezko loa edo osasun zerbitzu onak eta estatus ekonomiko egokia izatea?

(Aizu, 2010)

1. Zerk eragiten du zahartzaroko loaren kalitate txarra?

- A Adinak.
- B Adinak eta beste arrazoi batzuek.
- C Arrazoi psikosozialetan eta ekonomikoek.
- D Osasun zerbitzuek antzeman gabeko gaitzek.

2. Zein da ikerketaren ondorio nagusia?

- A Ordu gehiago lo eginda urte gehiago hartuko ditugu.
- B Osasun txarrekoen artean gehiago dira gaizki lo egiten dutenak.
- C Zahartu ahala lo premia areagotu egiten da.
- D Kalitate oneko loak erabat ziurtatzen du osasun ona.

Madagaskarreko arratoiak, izurrietaren gordeleku

Madagaskar irlako goi-lautadetan bizi diren arratoi beltzak izurrietaren gordeleku bilakatu dira. Munduan 2.000 izurrite kasu inguru gertatzen dira urtero, horietatik 200 edo 300 Madagaskarren.

Uharteak ia 80 milioi urte darama Afrikako kontinentetik bereizita, isolamenduan, baina gizakiak orain dela askoz gutxiago -1.000 urte- eraman omen zuten arratoi beltza bertara. Lehen epidemia 1898. urtean dokumentatu zen; uste denez, Tamatave kaira heldutako ontzi batek eraman zuten *Yersinia pestis* bakterioa. Hark berehala infektatu zituen arratoi beltzak, *Rattus rattus* espeziekoak. Arratoi horietako asko hil ziren eta hiltzen dira, baina joan den mendeko 20ko hamarkadaz geroztik arratoi multzo batek defentsak garatu ditu, eta bakterioaren eramaile bilakatu da.

Madagaskarreko Pasteur Institutuko ikerlari talde batek arestian aipatu arratoinen azterketa genetikoari ekin dio izurritea hobeto ezagutu asmoz, ez baita ahaztu behar Afrikan izaten dela munduko izurrite kasuen %98. Edozein laguntza ongi etorria izango da.

Joxerra Aizpurua
(Argia, 2010)

3. Zer gordetzen dute bere baitan Madagaskarreko arratoi beltzek?

- A Afrikako orain 80 milioi urteko izurriteak.
- B Egungo Afrikako izurrite kasu ugarien jatorria.
- C Afrikako epidemien bakterioen %98a.
- D Uhartera itsasoz iritsitako bakterioa.

4. XX. mendeko 20ko hamarkadaz geroztik gertatu den bilakaera zergatik da garrantzitsua?

- A Harrezkero arratoiak ez direlako hiltzen.
- B Arratoiak izurrite gehien aurkako defentsak garatu dituztelako.
- C *Rattus rattus* espezieko ale gutxi bizi direlako.
- D Bakterio eramaileak ikerketarako baliagarri izan daitezkeelako.

5. *Ni zaharragoa naiz, eta txirrindulari gazteei jarraitzen.*
- A nahiko lan izan dut
 B ozta-ozta daukat
 C alferrik galdu naiz
 D ezinean ikusi naiz
6. *Zozoak beleari*
Atsotitz horren amaiera:
- A hi kantuan habil?
 B eta beleak zozoari.
 C beltza, joan hadi!
 D ipurbeltz.
7. *..... gau batean abiatu ginen*
- A Uztaileko etxeruntz
 B Uztaileko etxerantz
 C Uztailako etxarantza
 D Uztailako etxeruntz
8. *Sekulako poza hartuko berarekin joango*
- A luke bazina
 B zuen bazinake
 C zukeen bazinan
 D du bazinen
9. *Zein dago zuzen?*
- A Atzo hamar kilometro ibili ginen eta gaur hamabi ibili egin gara.
 B Erregalatu ez; saldu egin zidaten txakurra.
 C Erloju hori hamaika mila pezeta ordaindu egin zuten.
 D Hil honetan lau liburu irakurri egin ditut.
10. *Ez didazu barrerik egingo,, kaiku horrek!*
- A ez horixe
 B ezta pentsatu
 C bakarrik falta da
 D ez da posiblea
11. **Norbait bere onetik atera:**
- A sumindu
 B iguriki
 C txolindu
 D oratu
12. *Lau orduren jakingo dugu botikak eragin dion ala ez.*
- A barrurako
 B bitartean
 C eta gero
 D buruan
13. *Sagarrak ostu eta oraingoan aldegin didazue, baina hurrengoan ordainduko duzue, !*
Jarraipena:
- A garestiegi, gainera!
 B jainkoarren!
 C beranduago edo goizago!
 D ederki ordainduko duzue!
14. *Txoriburu horri ez diogu azalpenik emango, apur bat*
- A zentzatu arte
 B zendu arte
 C zertu arte
 D zimeldu arte
15. *Apaizak dio: "Gaur lurperatzen ari garen laguna ez zen gizon txarra,"*
Jarraipena:
- A goian bego!
 B egon bedi lasai!
 C bejondeiola!
 D eutsi goiari!
16. *Urruneko eltzea urrez, gerturatu orduko lurrez. Zer esan nahi du?*
- A Hobeia dela auzokoarena gurea baino.
 B Auzokoarenak hobeia ematen duela, baina ez dela horrela.
 C Auzoan beti aukera hobeia dagoela gurean baino.
 D Gizakiak urruti heldu nahi duela beti.
17. *Ni ez naiz iristen; ogia, mesedez?*
- A hurbilduko didazu
 B hurbiltzen didazu
 C hurbil ahal didazu
 D hurbil iezadazu
18. *Asko da zuk hori ez jakitea. Zer esan nahi du?*
- A Gauza askorik ez dakiela.
 B Askotan ezin dela hori jakin.
 C Harrigarria dela horren berri ez izatea.
 D Beste askok ere ez dkitela hori.
19. **Idazkera. Zein zerrenda dago zuzen?**
- A arkeologia / abeltzaintza / pilotua / kanoia
 B arkeologia / abeltzaintza / pilotua / kañoia
 C arkeolojia / abeltzaintza / pilotoa / kanoioia
 D arkeolojia / abeltzaintza / pilotoa / kainoia

20. *Herri gehienek antzera, Euskal Herriak baditu orriak Interneten. Baina Euskal Herriaren pareko herri gutxi dira egitasmo hori gauzatu dutenak.*

Hau da:

- A Herri gehienek ez daukate orririk Interneten.
- B Euskal Herriaren pareko herri gehienek ez daukate orririk Interneten.
- C Euskal Herriak, herri gehienek antzera, ez du egitasmo hori gauzatu.
- D Herri gehienek Euskal Herriak baino orri gehiago dituzte Interneten.

21. *Iñakik proposatu duena ontzat emateko modukoa da.*

Hortaz: Iñakiren proposamenari ondo

- A deritzogu
- B deritzaigu
- C derizkiogu
- D deritzaioгу

22. **Puntuazioa. Zein dago zuzen?**

- A Aizu kaskamotz; zatoz hona lehenbailehen!
- B Aizu kaskamotz, zatoz hona lehenbailehen!
- C Aizu kaskamotz zatoz hona lehenbailehen!
- D Aizu, kaskamotz zatoz hona lehenbailehen!

23. *Istripua hainbat lagunengandik gertatu eta inork lagundu ez eroritako gizarajoari!*

Zein erantzun dago gaizki?

- A Bada gero, e!
- B Halakorik!
- C Sinestea ere!
- D Zenbat horrelakorik!

24. **Nola irakurtzen da $3/4 \times 5/8$?**

- A Hiru laurden bider bost zortziren.
- B Hiru lauren bider bost zortziren.
- C Hiru laurden bider bost zortzieren.
- D Hiru laurdenak bider bost zortzierenak.

25. *Nornahik ezagutzen ditu ondorengoak, hemen bilduak eta hor barrena sakabanatuak.*

Hau da:

- A Ondorengoak ederki ezagutzen ditu hemen bilduak eta hor barrena sakabanatuak.
- B Edozeinek ezagutzen ditu hemen bildu eta hor barrena sakabanatutako ondorengoak.
- C Nornahik ezagutzen ditu ondorengoak, hemen eta hor bildu eta sakabanatuak.
- D Edozeinek ezagutzen ditu ondorengoak, hemen bildu eta hor barrena sakabanatuagatik.

26. *Berrogei orrialde falta zaizkit bukatzeko.*

- A liburuekin
- B liburuz
- C liburua
- D liburuekin

27. *Ieeepa! Zer moduz?*

Zein erantzun dago gaizki?

- A Ondo esan beharko.
- B Izugarri ondo.
- C Ondo baino hobeto.
- D Kristoren ondo.

28. *Oporretan joanez gero, oroigarriren bat ?*

- A ekarri ahal zenidan
- B ekar zeniezadakeen
- C ekartzen didazu
- D ekarriko zenidake

29. *Sarrerarik gabe geratu zaretela?*

Jarraipena:

- A Zer egiten diogu, ba!
- B Lehenago etortzea zenuten!
- C Bada, etortzea hurrengoan!
- D Ze sarrera eta ze sarrera-ondo!

30. *Iñigori kaskamotz deitzen diote. Zergatik ote?*

- A Ilea motz-motza delako.
- B Kaskagorria delako.
- C Oso kaskarina delako.
- D Oso azkarra ez delako.

31. *Eredutik ikasiko bada, ikasteko ezagutu egin behar da eredia.*

Hau da:

- A Eredua eskola ona da ikasi nahi duenarentzat.
- B Ikaskizun da eredia, eredarri gertatuko bada gero.
- C Ikasteko egokiak gerta daitezten, eredu onak soilik ezagutu behar dira aurretik.
- D Biak dira beharrezkoak: ereditik ikastea eta ikasitakoa eredu bihurtzea.

32. *Biharko bukatuko al duzu?*

Erantzuna:

- A Noski baietz!
- B Halaxe!
- C Horren esperoan!
- D Jakina!

33. Uste baino askoz lehenago azaldu den lagunari nola esango zenioke?

- A Nolatan hi hemen?
- B Dagoeneko hemen?
- C Honezkero hemen?
- D Non sartu haiz aspaldi honetan?

34. *Josetxo neure besoetakoa dut.*

Esanahia:

- A Josetxo nire besoetan hazitakoa dela.
- B Josetxo nik bataiatu nuela.
- C Neu naizela haren aita pontekoa.
- D Josetxo nire iloba dela.

35. *Bihar mendira txango bat egiteko asmotan gara.*

Jarraipena:

- A Gu ere bai.
- B Baita ere gu.
- C Ere bai geu.
- D Gu ere.

36. *Baserri haiek ere, hutsik zeuden.*

- A bat beharrik, guztiak
- B bat ez beste guztiak
- C bat ez ezik
- D bataz beste guztiak

37. Zein zerrendatan dago hitz bat tokiz kanpo?

- A sargori / euritsu / oskarbi / haizetsu.
- B pipia / arkakusoa / liztorra / erlea.
- C pagoa / ametza / lizarra / gorostia.
- D aza / azalorea / enborra / leka.

38. *Hori txarto dagoela badakit,*

Jarraipena:

- A ondo jakin ere
- B ondo jakinez gero
- C ezer izatekotan
- D jakinaren jakinez

39. *Egoera honek Hiesa errazago antzematea ahalbidetuko du.*

Hots:

- A Egoera honek Hiesa errazago hedatzeko bidea emango du.
- B Egoera honek Hiesa hain erraz kutsatzea eragotziko du.
- C Egoera honek Hiesaren aurkako babesa sustatuko du.
- D Egoera honek Hiesa errazago diagnostikatzeke aukera emango du.

40. **Herriko medikuak apaiz zaharrari:**

Jauna, ibil bizkorrago, eta egin sermoi laburrago!

- | | |
|---------|-------|
| A bedi | beza |
| B beza | bitza |
| C bitez | begi |
| D dadin | dezan |

41. *“Aita, joango al gara parkera?”*

Aitak, amore emanez, erantzuna:

- A Ea, ba, goaz!
- B Ba, joaten gara, nahi baduzu!
- C Ezta pentsatu ere!
- D Tira, ba, goazen!

42. Zein dago gaizki?

- A Lau neskarekin etorri da.
- B Zenbat mutilei kontatu diezu hori?
- C Mezatarra joan da gure semea.
- D Zein da animaliarik ederrena?

43. *Nik ez dizut erraz bizkar emango;, ahal dudan guztian lagunduko dizut.*

- A baizik
- B ez ezik
- C bestalde
- D aitzitik

44. **Lexikoa. Zein dago zuzen?**

- A Ezagutzen ditut ume horren aitak.
- B Guda urrun hartako hildakoen zenbakiak ikaratu gaitu.
- C Kantariak irrintzika sartu ziren plazan.
- D Belarriko min asko daukat.

45. **Puntuazioa. Zein dago zuzen?**

- A Esanak, esan zuk ere beste askok bezala, amore eman beharko duzu.
- B Esanak esan, zuk ere, beste askok bezala, amore eman beharko duzu.
- C Esanak esan; zuk ere, beste askok bezala amore eman beharko duzu.
- D Esanak esan, zuk ere, beste askok bezala amore eman beharko duzu.

46. *Laurogei urte aldean eta, oraindik ere, eltzekada galanta jaten du egunero.*

Zer esango zenuke?

- A Hara, horrek lehengo lepotik burua!
- B Jakina, zaharrago eta txarrago!
- C Horrek ziria sartu ziguk guri!
- D Jakina, zahartzaroaren ajeak!

47. *Ez da batere ohikoa Joane Somarribak lortu duena, bi Giro eta Tourra irabaztea.*

- A aurki
- B zera da
- C halaber
- D alegia

48. **Idazkera. Zein dago zuzen?**

- A Gazte durangarra, Euskal Herriko Unibertsitatera joan da.
- B Gazte Durangarra, Euskal herriko unibertsitatera joan da.
- C Gazte durangarra Euskal-Herriko unibertsitatera joan da.
- D Gazte Durangarra Euskalerriko Unibertsitatera joan da.

49. **Zein dago zuzen?**

- A Mundu guztiari ardura diona dirua da.
- B Pila bat arazo izan dituzte ordenagailu berriarekin.
- C Nire iritziz aurrerantzean ez zenuen politikan sartu behar.
- D Denetik jasan behar izan omen zituzten.

50. *Aita alferra eta lotia, eta Roberto, semea, antzekoa oso.*

Hau da: Aita-semeak

- A sustrai berekoak dira.
- B jatorri berekoak dira.
- C ezpal berekoak dira.
- D etxe berekoak dira.

51. **Hegaztiak jan baino lehen zer egin behar da?**

- A beratzen jarri
- B lumatu
- C zuritu
- D irabiatu

52. *Gure egitasmoa bideratzeko bitartekoak behar ditugu.*

Hau da:

- A Gure nahia bete arte ez dugu etsiko.
- B Gure asmoak ez dira bideragarriak.
- C Baliabideen premian gaude.
- D Behin-behineko egitasmo bat behar dugu.

53. **Asmo onekin, patxadaz, hurbildu nintzaion,**

- A neure onetik aterata
- B on beharrez
- C ahotan hartu gabe
- D ahoa bete haginekin

54. *Egun bi barru elkartuko gara, hau da,*

- A herenegun
- B etzi
- C etzidamu
- D bart

55. **Duela gutxi gertatutako zerbait azaltzen hasteko:**

- A Beste egunean...
- B Lehengo batean...
- C Harako hartan...
- D Halako batean...

56. *Ikasturtea alferkerian pasatu dut, baina dena gainditu dut.*

Erantzuna:

- A Ez dagoena zara zu!
- B Zeu bai zarela!
- C Zu zeu bezalakoa zara!
- D Zu zara zu izatekoa!

57. *Ez dakit zenbat kilometro dauden*

- A Zuberoatik Gipuzkoara.
- B Zuberotik Gipuzkoara.
- C Bizkaiatik Nafarroara.
- D Bizkaitik Nafarroara.

58. **Zein dago zuzen?**

- A Taxiz itzuliko direla jakiteak asko lasaitzen dit.
- B Nire semea hain garaiz itzultzeak zeharo harritu zidan.
- C Mikelek ariketa gogorak egitera behartzen gaitu.
- D Gazteei gehien kezkatzen diena langabezia da.

59. **Zein bikote dago zuzen?**

- A Bizkaiako / hamalauko.
- B Kokotaraino / autobusaraino.
- C Ertzaren bat / plateraren bat.
- D Abantailarik / zikinkeriarik.

60. **Zein dago zuzen?**

- A Ehun umetatik hogeie elebidunak dira.
- B Umeen ehuneko hogeiek elebidunak dira.
- C Ehuneko umeetatik hogeie elebidunak dira.
- D Ehuneko hogeie ume elebiduna da.

61. *..... azken egunetan dira ardiak menditik.*

- A Iraileko jaisten
- B Iraileko jeisten
- C Irailako jaisten
- D Irailako jeisten

62. Zein dago zuzen?

- A Horrek ere daki zer egin horrelako kasuetan.
- B Horrek ere bai daki zer egin horrelako kasuetan.
- C Horrek badaki ere zer egin horrelako kasuetan.
- D Horrek ere badaki zer egin horrelako kasuetan.

63. *Triste daude, zeren izarri horretan maite zuten norbaitek bizia*

- A galdu baitu
- B galtzeagatik
- C galdu duelako
- D galdu duelarik

64. *Bihotzeko arazoak omen zituen. Egun batean eztulaldi handi bat izan zuen eta*

- A ziplo geratu zen bertan.
- B danba hasi zen bat-batean laguntza eske.
- C tipi-tapa lurrean etzan eta medikua eskatu zuen.
- D brast eskatu zuen apaiza.

65. *Ezagun du aberatsa dena.*

Hots:

- A Aberats guztien adiskide da.
- B Edozein aberats ezagutzen du horrek.
- C Begi-bistakoa da aberatsa dela.
- D Trebetasun handia du aberatsa zein den jakiteko.

66. *Benetan sinestu al dizu hori?*

Erantzuna:

- A Hasi eta buka, sinestuta ere!
- B Begi truk sinestu ere!
- C Itsu-itsuan sinestu ere!
- D Hitzetik hortzera sinestu ere!

67. Zein dago gaizki?

- A Hilaren lauan
- B Gaur gauean
- C Egin nahiean
- D Etxeko balkoian

68. *Eta non dago zorioneko mamua edo*?

Jarraipena:

- A dena delako hori
- B izendatutako hori
- C zoritxarreko hori
- D dena deneko hori

69. Zein ondo pasatu genuen, esango nuke!

- A inoiz ez hobeto
- B inoiz hoberen
- C inoizkorik ondoen
- D inoiz baino hobekiago

70. Euskara batuan, zein dago zuzen?

- A Ez nebilen askok uste bezain gaizki.
- B Ez neraman nik uste adinako pisurik.
- C Gazte horiek bazterrak nahasten dabilzate.
- D Uso horiek Afrika aldera dijoaz.

71. *Bere txikian, nornahiri eramango dio horrek gizontasunean.*

Bestela esanda:

- A Handiagoa izango balitz, edozeini irabaziko lioke horrek gizontasunean.
- B Txikitasuna gorabehera, gizona da hori.
- C Txikia izatera, nornahiri eramango dio horrek gizontasunean.
- D Txikia izate aldera, edozeini irabaziko lioke horrek gizontasunean.

72. *Gasteizko jaietan kartera ostu zidaten, baina agiriak etxean nituen.*

Erantzuna:

- A Gutxi horrelakorik!
- B Gaitz erdi!
- C Gutxiagorik!
- D Gutxi okerrago!

73. *Oraindik ez da akordiorik erdietsi, eta nekazaritza arloan ez bada, aldean proposamenak urruntxo daude.*

Alegia:

- A Nekazaritza arloak akordioa oztopatzen du.
- B Akordioa lortu arte nekazaritzak ez du aurrera egingo.
- C Adostasun-mailarik handiena nekazaritza arlokoa da.
- D Akordioa lortzeko nekazaritzatik abiatu beharko dute.

74. *Noren antza atera du umeak? Diotenez, eman du.*

- A amatara
- B amarentzat
- C amara
- D amarekiko

75. dituen haurrari esaten zaio.

- A Makarrak makatza
- B Mainak mainontzia
- C Tripazorriak tripontzia
- D Gutziak guraria

76. *Liburu hau beste guztiak irakurri ditut.*

- A ez baino
- B ez ezik
- C baita
- D izan ezik

77. *Oso apain jantzi eta prestatu zarete.*

Jarraipena:

- A Nora joaterakoan?
- B Norako asmotan?
- C Nongo bidean?
- D Nolako asmoa?

78. *Elkarrekin joan al dira?*

Erantzuna:

- A Horixe ezetz! Banaka joan dira.
- B Ez nork bere bidetik.
- C Bai horixe! Elkar joan dira.
- D Bai zera! Nor bere bidetik joan da.

79. *Zeinetan dago hitz bat tokiz kanpo?*

- A azeria / otsoa / erbinudea / basakatu
- B trumoia / tximista / oinaztarria / ekaitza
- C oinazea / mina / erresumina / grina
- D txitoa / oiloa / oilaskoa / oilaloka

80. *Zein dago zuzen?*

- A Inork ez omen du ezertxo ere ikusi.
- B Geuk ere ez dugu ezer ez ekarri.
- C Horrek ardura niri? Ezta bat ere ez!
- D Nor gonbidatuko dudan? Inor!

81. *Zein bikote dago gaizki?*

- A Kolore mingotsa.
- B Paper latza.
- C Kristal gardena.
- D Ur arrea.

82. *Gauzak ez omen dira batere aldatuko, jarraituko dute.*

- A dauden-daudenean
- B egon-egonean
- C dauden bezalako
- D dauden bezalakoak

83. *Mirenekin joango da Bilbora.*

Harridura adierazteko, zein dago gaizki?

- A Mirenekin joango dela Bilbora?
- B Mirenekin joango den Bilbora?
- C Norekin joango dela Bilbora?
- D Nora joango dela Mirenekin?

84. *Liskarra liskarraren atzetik, Lasatarren etxean!*

- A ez da tenore
- B ez da giro
- C ez da betarik
- D ez da paradarik

85. *Eta zuk zer egingo oporrak oraintxe emango*

.....

- | | |
|------------|---------------|
| A zenuke | balizkizukete |
| B zenukeen | balizute |
| C zenuen | bazizkizuten |
| D zenuke | balizkizute |

OHARRA:

Azterketa bukatzen duzunean, konproba itzazu hurrengoak: (1) erantzunak; (2) NA zenbakia eta eguna ongi markatu dituzula. Ez mugitu zure aulkitik arduradunak horretarako baimena eman arte.



ERANTZUN-ORRIA

A. HASI AURRETIKO OHARRAK

1. Ez tolestu, ez zimurtu orri hau.
2. 2 zenbakiko arkatza erabili betetzeko.
3. Erantzuten hasi baino lehen bete ezazu B atala.
4. Zuzendu nahi baduzu, borragomaz ongi ezabatu.
5. Ez mugitu aukitik; zerbait nahi baduzu, aitxa eskua.

B. IDATZI ZURE DATUAK

Izen-deiturak:

(Deialdi itxien kasuan) zein euskaltegiren bidez matrikulatu zara?

Idatz ezazu zure NAN zenbakia, ikus adibidea.

ADIBIDEA										ZURE ZENBAKIA									
0	8	9	0	7	8	2	9			0	0	0	0	0	0	0	0		
0	0	0	0	0	0	0	0			0	0	0	0	0	0	0	0		
1	1	1	1	1	1	1	1			1	1	1	1	1	1	1	1		
2	2	2	2	2	2	2	2			2	2	2	2	2	2	2	2		
3	3	3	3	3	3	3	3			3	3	3	3	3	3	3	3		
4	4	4	4	4	4	4	4			4	4	4	4	4	4	4	4		
5	5	5	5	5	5	5	5			5	5	5	5	5	5	5	5		
6	6	6	6	6	6	6	6			6	6	6	6	6	6	6	6		
7	7	7	7	7	7	7	7			7	7	7	7	7	7	7	7		
8	8	8	8	8	8	8	8			8	8	8	8	8	8	8	8		
9	9	9	9	9	9	9	9			9	9	9	9	9	9	9	9		

Adminis-
trazioak
betetzeko

HONELA BAI



HONELA EZ



AZTERKETA EREDUA

Galdere-orrietan agertzen den eredu-letrak eta azpian markatutakoak bat etorri behar dute. Horrela ez bada, aitxa eskua.

A B C D E F G H

Idatz ezazu gaurko data:

Urtea	Hila	Eguna

C. ZURE ERANTZUNAK

1	A B C D	21	A B C D	41	A B C D	61	A B C D	81	A B C D
2		22		42		62		82	
3		23		43		63		83	
4		24		44		64		84	
5	A B C D	25	A B C D	45	A B C D	65	A B C D	85	A B C D
6		26		46		66		86	
7		27		47		67		87	
8		28		48		68		88	
9	A B C D	29	A B C D	49	A B C D	69	A B C D	89	A B C D
10		30		50		70		90	
11		31		51		71		91	
12		32		52		72		92	
13	A B C D	33	A B C D	53	A B C D	73	A B C D	93	A B C D
14		34		54		74		94	
15		35		55		75		95	
16		36		56		76		96	
17	A B C D	37	A B C D	57	A B C D	77	A B C D	97	A B C D
18		38		58		78		98	
19		39		59		79		99	
20		40		60		80		100	

ATARIKO PROBA • Azterketa eredua-2 • (item zk / Erantzuna)

1	C	16	B	31	B	46	A	61	A	76	D	
2	B	17	A	32	D	47	D	62	D	77	B	
3	D	18	C	33	B	48	A	63	A	78	D	
4	B	19	A	34	C	49	A	64	A	79	C	
5	A	20	B	35	A	50	C	65	C	80	A	
6	D	21	A	36	B	51	B	66	C	81	A	
7	B	22	B	37	D	52	C	67	C	82	A	
8	A	23	D	38	A	53	B	68	A	83	B	
9	B	24	A	39	D	54	B	69	C	84	B	
10	A	25	B	40	A	55	B	70	B	85	D	
11	A	26	C	41	D	56	D	71	B			
12	D	27	D	42	B	57	A	72	B			
13	D	28	D	43	D	58	C	73	C			
14	A	29	B	44	C	59	D	74	A			
15	A	30	A	45	B	60	A	75	B			



Euskararen Gaitasun Agiria

EGA

ATARIKO PROBA

Azterketa eredua-3

Azterketa-eredua: **A**

> IRAKUR ITZAZU OHARROK

1. Galdera-orri hauetatik atera ezazu solte dagoen erantzun-orria.
2. Konproba ezazu koadernotxo honek 8 orrialde dituela eta ez dagoela ageriko akatsik.
3. Koadernotxo hau ez da zuzentzen, baina idatz itzazu zure izen-deiturak eta NA zenbakia:

NA zenbakia

Izena

1. deitura

2. deitura

4. Atariko proba egiteko denbora: ordubete.
 5. Erantzuten hasi aurretik bete ezazu aparteko **erantzun-orriko B atala**. Kontuan izan orri hori dela zuzentzen dena. Ipin datuak eta markak behar bezala.
 6. Ariketa bakoitzean aukeratu behar duzu erantzun **zuzena** edo **egokiena** edo **zein dagoen gaizki** eta erantzun-orrian dagokion koadrotxo arkatzez markatu: erantzun bakarra.
 7. Asmatu erantzun bakoitzeko, puntu bat; erantzun okerrenetatik ez da punturik kentzen.
 8. Aukera anitzeko test hau era automatizatuan zuzentzen da, irakurgailu optiko bidez.
- > Erantzun-orria betetzearekin azterketariak era honetako zuzenketari berariazko onespena ematen diola ulertzen da.

Algen eta oskoldunen arteko sinbiosia aurkitu dute

Ambystoma maculatum arrabio motadunaren enbrioiek zelulen barruan eratzen dute sinbiosi-harremana *Oophila amblystomatis* algarekin. Zehazki, mitokondrioen ondo-ondoan aurkitu dituzte algak Kanadako Dalhousie Unibertsitateko ikertzaile batzuek. Alga arrautzen kanpoko gelatinan egoten dela aspalditik zekiten zientzialariek, baina orain arte inoiz ez zuten ikusi horrelakorik zelulen barruan.

Igorritako fluoreszentziaren irudiak aztertzean ohartu ziren ikertzaileak enbrioien zelulen barruan klorofila egon zitekeela. Ondoren, mitokondrioak algen ondoan zeudela ikusi zuten transmisioko mikroskopia elektronikoz. Adierazi dutenez, horrek iradokitzen du algak fotosintesi bidez sortutako azukreei eta oxigenoari ateratzen dietela probetxua mitokondrioek.

Sinbiosi-harreman hori sakonago ezagutzeko ikerketetan, ikusi dute nerbio-sistema eratzen hasten den garaian sartzan direla algak enbrioien zelulen barruan. Horregatik uste dute ikertzaileek ez zaiela lehenago antzeman; izan ere, normalean garapenaren lehenagoko faseetan aztertzen dira enbrioiak.

Gainera, adierazi dute litekeena dela amaren “opari” bat izatea algak. Izan ere, alga berdina aurkitu dituzte enbrioien zeluletan eta arrautzak jarri dituen emearen obiduktuan, arrautzak obulutegitik kanpoaldera eramaten dituen hodian.

Elhuyar, 2010, 269 zk

1. Non aurkitu dute, oraintsu, algen eta ornodunen arteko sinbiosi-harremana.

- A Ornodunen nerbio-sisteman.
- B Arrabio motadunaren zelulen barruan.
- C Ornodun emearen obulutegian.
- D Ornodunen arrautzen azalean.

2. Noiz sartzan dira algak ornodunen enbrioien zelulen barnean?

- A Ornodunen nerbio-sistema eratzen hasten denean.
- B Ornodun emeek arrautzak jartzen dituztenean.
- C Algak fotosintesia egiten hasten direnean.
